

2012. urteko diru-laguntzen deialdia

Eremua: IMMIGRAZIOA

**Diru-laguntzen 2. lerroa: Kulturartekotasuna eta kohesio
soziala sustatzeko programak.**

1. Artikulua: Eremua eta helburua

Lankidetzeta, Bizikidetzeta eta Jaietako Sailak, Inmigrazioaren alorrean, "Kulturartekotasuna eta kohesio soziala sustatzeko programak" izeneko lerroaren bidez, diru-laguntzen deialdia egiten du. Pertsona etorkinen elkartean, etorkinen laguntzarako elkartean, eta orokorrean, kulturartekotasunaren alde lan egiten duten elkartean proiektu eta programak finantzatzeko diru-laguntzak dira eta 2020ko abenduaren 31 baino lehen exekutatu dira.

2. artikulua.- Aplikatzekoa den araudia

Eskaerak ebazteko prozedurak honako hauetan araututakoa beteko du:

- Bilboko Udalak eta haren zuzenbide publikoko erakundeek deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra (2016ko uztailaren 20ko BAO),
- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; eta azkenik, lege hori garatzen duen araudia.

Halaber, honako lege hauetan diru-laguntzen gainean ezarritakoa ere aplikatuko da:

- Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoa, eta gainerako araudi osagarriak;
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa, zehazki I. titulua.
- 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzkoa, zehazki II. titulua.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

3. Artikulua.- Entitate onuradunak.

3.1. Irabazi asmorik gabeko elkarteek diru-laguntza eska dezakete baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Egoitza nagusia edo ordezkaritza iraunkorra Bilbon edukitzea, agiri bidez egiaztaturik, gutxienez, laguntza hauek eskatu baino bi urte lehenagotik.
- b) Helburuen artean, bizikidetzaren, kohesio sozialaren eta kulturartekotasunaren sustapena edukitzea.
- c) Deialdi honen eremuko jardueren bultzatzaileak izatea Bilbon.

Ondorio horietarako, udalerrian presentzia aktibotzat hartuko da, azken bi urteetan entitatearen arlotik kanpoko jarduera zabal eta publikoak egin izana, adibidez:

- Sentsibilizazio eta elkartasun kanpainak.
- Ikastetxeetan, entitate sozialetan, auzo elkarteetan eta bestelakoetan egindako sentsibilizazio edota formakuntza jarduerak.
- Deialdi honen eremuarekin zerikusi duten erakusketak.
- Gaiarekin zerikusi duten testuak, gida didaktikoak, artikulua, erreportajeak eta ikerketak argitaratzeko edota ikertzeko jarduerak.

- Bilboko Lankidetzarako Udal Kontseiluko, Berdintasunerako Bilboko Emakumeen Kontseiluko edota Bilboko Udaleko Inmigrazio Kontseiluko kidea izatea eta haien jardueretan parte hartzea.

d) Entitateen partzuergoek (edo izaera juridikorik gabeko elkarteak) ere eska dezakete diru-laguntza. Hala eta guztiz ere, entitate bat izendatu beharko dute taldearen ordezkari edo ahalordedun, eta taldeari onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko adina ahalorde izan beharko ditu. Entitate ordezkari honek aurreko puntuetako baldintza guztiak bete beharko ditu eta hark izango du partzuergo edo elkartearen ordezkaritza horretarako irekiko den administrazio-espeditentean. Partzuergo-elkartea ez desegiteko konpromisoa formalizatu beharko dute, preskripzio epea igaro ez den artean, diru-laguntza jaso ahal izateko,. Eskabidean agertu beharko dira entitate bakoitzak bereganatu dituen konpromisoak.

Partzuergoko partaide guztiek bete beharko dituzte 3.3. artikuluaeren betebeharrak.

e) Deialdi honen ebazpena ateratzerako, 2019ko edo lehenagoko Diru-laguntzen Deialdiei dagozkien diru-laguntzak justifikatuta eduki beharko ditu entitate eskatzaileak. Eskumena duen organoaren ebazpen bidez ezeztatuko da betebeharrak hau betetzen ez duen edozein diru-laguntza eskaera.

f) Entitate eskatzaileak ezarritako epean aurkeztuko du dokumentazioa. Geroago aurkezten den ezein agiririk (Sailak espresuki eskatutakoa ez bada) ez da kontuan hartuko proiektua baloratzerakoan.

3.2. Entitate eskatzaileek Bilboko Udalaren herritarren parte hartzerako Entitateen Erregistroan (Herritarrentzako Arreta eta Partaidetza Sailean dagoena, Venezuela Plaza 2, 4.a) izena emanda egon behar dute eta datuak gaurkotuta eduki behar dituzte, eskariak aurkezteko epea amaitzean.

3.3. Entitate eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta Bilboko Udalarekiko tributu-betebeharrak ordainduta izan behar dituzte, diru-laguntza eman, betebeharra onartu eta ordaintzen den unerako.

4. Artikulua.- Aurrekontu-kredituak.

4.1. Deitutako diru-laguntzak Bilboko Udalaren aurrekontu orokorreko aurrekontu-kodearen PEP: 2020/00358 eta ekitaldirako 2020 onartutako 2020 32000 4 00358 00 2020 gastu-proiektuaren kontura finantzatuko dira.

Deialdi honetarako zenbatekoa **20.000 €** da.

4.2. Deialdia onartzen denetik diru-laguntza ematen den arte egoera ekonomikoak okerrera egiten badu, zenbateko horiek gutxitu daitezke, defizitik ez izate aldera. Izan ere, betekizun hori Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan dago ezarria eta administrazio publikoek bete egin behar dute; lege horri jarraikiz, beraz, horrelakoetan aurrekontuak doitu egin behar dira.

5.-Artikulua. Diru-laguntza emateko prozedura

5.1. Norgehiagokako erregimenean ezarri da diru-laguntza ildo honetako dotazio ekonomikoa. Aurkeztutako eskabideak alderatzen dira, lehentasun-ordena ezartze aldera, 9. artikuluan aipaturiko irizpideen arabera. Gero, diru-laguntza, balorazio handiena lortu dutenei ematen zaie, betiere, deialdian zehaztutako aurrekontu-zuzkiduraren zenbatekoa gainditu gabe.

5.2. Bigarren lerro honetan onartutako diru-laguntzen kopurua aurrekontua baino txikiagoa balitz, soberakina etorkinen elkartearen funtzionamendurako 1. Lerroa bideratuko da.

5.3. Norgehiagokako sistema erabiltzen den kasuetan, behin gutxieneko atalasea helduta (65 puntu), emateko diru-laguntzaren zenbatekoa doitu egingo da, programa bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera portzentaje bat aplikatuz, taula honi jarraikiz:

Programari emandako puntuak	Emango zaion diru-laguntzaren %a.
80 puntu baino gehiago	Eskatutako zenbatekoaren % 100
70 eta 80 puntu	Eskatutako zenbatekoaren % 80
70 puntu baino gutxiago	Eskatutako zenbatekoaren % 70

5.4. Lerro honetan eskatu/onartu daitekeen kopurua, gehienez, 2.500 eurokoa izango da.

6. Artikulua.- Diruz laguntzeko diren kontzeptuak.

Diru-laguntza lerro honen helburuak honako hauek dira:

- a) Kulturartekotasuna, bizikidetzeta eta kohesio soziala bultzatzea udalerrian.
- b) Aniztasunean aritzeko guneak sortu, taldeen eta komunitateen arteko interakzio eta elkarrizketa errazte aldera.
- c) Kulturarteko loturak sortzen lagundu zenbait arlotan: komunitatean, auzoan, ikastetxean, eta abar.

Diruz laguntzeko diren programatzat hartzen dira honako hauek:

- a) Bilbotarrak, aniztasun kultureko inguruetan bizikidetzeta, integrazioa eta kohesio soziala bezalako balioez informatu, sentsibilizatu, kontzientziatu eta konprometituko dituztenak.
- b) Jardunaldiak, hitzaldiak, ikastaro laburrak, hezkuntza formal edo ez-formaleko ekintzak, mintegiak, kanpaina tematikoak, kale ekintzak eta antzerakoak jasotzen dituztenak.
- c) Kulturartekotasunaren arloan, kohesio soziala, bizikidetzeta eta integrazioa balioetan hezteko proposamentzat hartzen dituztenak eta herritarren kultur aniztasuna errespetatuko duen mundua lortzearen alde egingo dutenak.
- d) Generoaren ikuspegia jasotzen dutenak, Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legean azaltzen den moduan ulertuta: emakumezkoen eta gizonezkoen egoera, baldintza, asmo eta beharizan desberdinak

sistematikoki kontuan hartzea, politika eta ekimen guztietan eta beren planifikazio, betearazte eta ebaluazio fase guztietan desberdintasunak ezabatzea eta berdintasuna sustatzera bideratutako helburu eta jarduerak txertatzen direla bermatzeko.

e) 2020ko abenduaren 31 baino lehen amaituko direnak.

Diruz lagundutako programen betebeharrak:

a) Programan diruz lagundutako arloak gastu arruntari atxikitakoak izango dira, eta ez kapital-ondasunei lotutakoak (ekipo informatikoak, inprimagailuak, eta abar).

b) Indarrean dagoen aurrekontu-ekitaldian hasi eta bukatu beharko dira.

c) Ez dira lagunduko azterketak, ikerketak, didaktika edota informazio-argitalpen berriak eta itzulpenak, ezta entitatea bera indartzeko proiektuak ere.

d) Entitate eskatzailea ezin izango da izan, inolaz ere, diru-laguntza nominaleko inongo hitzarmenaren titular, ez Inmigratio udal aurrekontuan, ezta Sentsibilizazio eta Garapenerako Hezkuntzaren arloko Garapenerako Lankidetzaren aurrekontuan ere.

e) Proiektua iragartzeko erabiliko diren komunikazio-euskarri guztietan Bilboko Udalaren logotipoak agertu behar du, Lankidetzaren, Bizikidetzaren eta Jailetako sailaren argibideak kontuan hartuta. Entitate onuradunak material horiek aldeztu aurretik gainbegiratzeko aukera emango dio Bilboko Udalari. Betebehar hau betetzen ez bada, onartutako diru-laguntza itzultzeko prozedura abian jar daiteke.

f) Lankidetzaren arituko da Bilboko Udalarekin, edo Bilboko Inmigratio Kontseiluarekin, edo egoki irizten den beste entitate baten batekin, herritarrei proiektuaren garapeneraren berri emateko eta gai honi buruz etorkizunean elkarrekin antola litezkeen jardueretan parte hartu beharko du.

7. artikulua.- Eskabideak

7.1. Aurkezteko epea.

Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunean hasiko da eta 2020ko otsailaren 17an amaituko da.

7.2. Informazioa eta dokumentazioa.

Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia hemen egongo da eskuragarri:

- Bilboko Udalaren web orrian (www.bilbao.eus).
- Bilboko Udalaren gardentasun-atarian (www.bilbao.eus/cs/Satellite/transparencia/es/inicio).
- Diru-laguntzen Estatuko Datu Basean (www.infosubvenciones.es).
- Bilboko Udalaren Herritarren Informazio Bulegoan eta barrutietako udal bulegoetan, ohiko ordutegietan.

7.3. Bideratzea

Eskariak Udalaren web-orriaren bitartez edo udal erregistroan egin daitezke.

- Eskaria **Udalaren web-orria** medio bideratuz gero, aplikazioak eskatzen dituen pauso guztiak eman behar dira eta eskatzen dituen datu guztiak jarri behar dira.
- Eskaria **udal erregistroan** aurkeztuz gero, diru-laguntzaren arlo eta ildo bakoitzeko eskari-orri bat bete behar da, Bilboko Udalak zehaztutako ereduaren arabera.

Orri horretan erakunde eskatzaileak diru-laguntza ildo horretan zer programa aurkeztu nahi dituen zehaztuko du, arloari dagozkion diruz laguntzeko moduko kontzeptuen arabera.

Eskari-orria aurkeztu daiteke Hiritarrentzako Arreta Bulegoan, barrutietako udal bulegoetan eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan legez ezarritako gainerako lekuetan.

7.4. Erakundearen legezko ordezkari edo legezko ahalordea duen pertsonak sinatuko du eskabidea, aditzera emanaz adierazitako datu guztiak egiazkoak direla eta erakunde eskatzaileak onuraduna izateko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 24.2 artikulua ezartzen dituzten debekuetako bat ere ez duela, eta eskaeran adierazitako datuak egiazkoak direla.

7.5. Diru-laguntza eskariak ezin dute gainditu, inola ere, programa bati emateko zenbateko handiena. Gehienezko zenbateko hori diruz laguntzeko kontzeptu bakoitzean zehazten da.

7.6. Halaber, eskari guztietan kontuan hartu behar da diru-laguntzen eta beste iturri batzuen bitartez lortzen den finantziarioak, guztira, ezin duela gainditu aurkeztutako programaren kostua.

7.7. Bilboko Udalak, aurkeztutako eskariak hobeto baloratze aldera, egoki irizitako argibide guztiak eska diezazkiete erakunde eskatzaileei.

7.8. Programa bakoitza diru-laguntzen udal-lerro baterako bakarrik aurkeztu beharko da.

7.9. Immigrazio arloko 2. Lerro honetan, entitate eskatzaile bakoitzeko programa bakarra aurkeztu ahal izango da.

8. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

8.1. Eskaria **Udalaren web-orriaren** bitartez bideratuz gero, bi dokumentu hauek aurkeztu behar dira, PDF formatuan:

- Landuko den programa bakoitzaren edukia azaltzen duen dokumentu bat; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da, "Jardueren Programa" deritzon ereduaren arabera. 1. eranskina ikusi.
- Erakundeak aurreko urtean egin dituen jardueren memoria (salbu erakundea duela gutxi sortu bada).

8.2. Eskaria **udal erregistroan** aurkeztzen bada, **dokumentazio** hau gehitu behar zaio:

- Programa bakoitzaren laburpen-fitxa, emandako ereduaren arabera.
- Programa bakoitzaren aurrekontuaren fitxa, emandako ereduaren arabera.

- Landuko den programa bakoitzaren edukia azaltzen duen dokumentu bat; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da, "Jardueren Programa" deritzon ereduaren arabera. 1. eranskina ikusi.
- Erakundeak aurreko urtean egin dituen jardueren memoria.

8.3. Eskaera sinatzen duenak espresuki baimenduko dio Bilboko Udalari egiazta dezala betebeharrak fiskalen eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharraren ordainketa egunean daukan. Dena dela, baimena espresuki ukatu ahal izango du, baina horretarako aurkeztu beharko ditu, administrazio eskudunak indarrean dagoen urtean emanik, zerga-betebeharrak ordainduta dauzkala egiaztatzen duen agiria eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta dauzkala edo langilerik ez daukala egiaztatzen duen agiria.

8.4. Bilboko Udalaren diru-laguntzarik edo beste edozein kontzepturengatik ordainketarik jaso ez duten eta, beraz, Hartzekodunen Erregistroan ez dauden erakundeek "hartzekodunen fitxa" aurkeztu behar dute, behar bezala beteta.

8.5. Eskaria ez bada behar bezala formalizatu edo aipaturiko datu edo dokumenturen bat falta bada, erakunde eskatzaileari **10 egun balioduneko epean akatsak zuzen ditzan** eskatuko zaio eta azalduko zaio akatsak zuzendu ezean eskaria artxibatu egingo dela, besterik gabe.

9. artikulua. Balorazio-irizpideak

Aurkeztutako programak irizpide eta puntuazio hauek aplikatuz baloratuko dira:

A) Programa baloratzeko irizpideakGUZTIRA 80 puntu

a) Programaren interesa. Gehienez 45 puntu.

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Udal Sailen ildo estrategiko, helburu eta irizpideekin bat etortzea; partaide-kopurua; aurreikusitako eragina; berrikuntza eta teknologia berrien erabilera; eremu geografikoa; programaren iraupena; kolektibo hartzailea; programaren egonkortzea (aurrez landutako programen kasuan); beste erakunde batzuekin elkarlanean aritzea; jarduera non gauzatzen den.

b) Programaren diseinuaren kalitatea..... Gehienez 10 puntu.

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Honako hauek sartzea: zer emaitza lortzea espero den, programa zenbateraino bete den jakiteko eta ebaluatzeko adierazleak, kanpo-komunikazioa, barne-komunikazioa, justifikazioa (programa gauzatzeko arrazoiak).

c) Aurrekontua egokia izatea..... Gehienez 10 puntu.

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Baliabideak modu eraginkorrean egokitzea, eta programaren interesaren eta aurkeztutako aurrekontuaren arteko erlazioa.

d) Programan gai hauek zeharka nola lantzen diren: euskara, genero-berdintasuna, gazteria, irisgarritasuna..... Gehienez 15 puntu.

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Elebidunentzako euskarazko jarduerak antolatzea, programak gazteen partaidetza integratzea, programan genero-ikuspegia kontuan hartzea, hizkuntza eta irudiak modu ez-sexistan erabiltzea, jardueren memoria sexuaren arabera banakatzea, programak pertsona guztientzako eskuragarritasuna ziurtatzeko neurriak izatea.

B) Erakunde eskatzailearen balorazioa.....GUZTIRA 20 puntu

Irizpide honen barruan zer baloratuko den:

Esperientzia egiaztatua, programa lantzeko gaitasuna, egitura partizipatibo eta bidezkoa, koordinakundeetan parte hartzea, bazkideek prestakuntza-ikastaroetan parte hartzea, bazkide-kopurua, egoitzaren irisgarritasuna.

10. artikulua. Izapideak eta balorazioa

10.1. Prozeduraren izapideak egiteko eskumena Lankidetza, Bizikidetza eta Jaietako Saileko Immigrazio Negoziatuari atxikitako langileek izango dute.

10.2. Kide anitzeko organo gisa jardungo duen balorazio-batzordeko kideak hauek izango dira:

Presidentea: Lankidetza, Bizikidetza eta Jaietako Saileko zinegotzi ordezkaria.

Idazkaria: Lankidetza, Bizikidetza eta Jaietako Saileko Zuzendaria.

Kideak: Lankidetza, Immigrazio eta Giza Eskubideen Sekzio Burua eta Immigrazio teknikaria.

10.3. Deialdi honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera eskariak ebaluatu ondoren, Balorazio Batzordeak txostena egingo du, egindako ebaluazioaren emaitza jasotzeko.

10.4. Instrukzio-organoak, espedientea eta Balorazio Batzordearen txostena kontuan hartuta, behin betiko erabaki-proposamena egingo du.

11. artikulua. Berriz antolatzea

Behin programa guztiak baloratuta, erakunderen bati emateko zenbatekoa ez badator bat hark eskatutakoarekin, arau hauek beteko dira, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Bilboko Udalaren Ordenantza Orokorreko 10.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz:

A) Emateko diru-laguntza eskatutako zenbatekoaren % 70 edo handiagoa bada, Bilboko Udalak, ofizioz, erakundeak bere garaian aurkeztutako aurrekontua gutxituko du, proportzionalki.

Jardueraren amaieran, aldatutako azken aurrekontu hori justifikatu beharko du erakundeak.

B) Emateko diru-laguntza eskatutako zenbatekoaren % 70 baino txikiagoa bada:

a) eta eskatutako zenbatekoa 2.000 euro edo gutxiago bada, prozedura aurreko atalean (A) zehaztutako berbera izango da.

- b) eta eskatutako zenbatekoa 2.000 euro baino handiagoa bada, Bilboko Udalak erakundeari jakinaraziko dio 10 eguneko epean programa berrantolatu beharko duela, aurrekontua zenbateko horren arabera egokitzeko, edo, bestela, diru-laguntzari uko egin beharko diola. Udalak, erakundearen erantzun espresua jasotzen ez badu, ulertuko du diru-laguntzari uko egitea erabaki duela.

12. artikulua. Ebazpena

12.1. Prozedura ebaztea Gobernu Batzordeari dagokio.

12.2. Eskariak ebazteko eta erakunde eskatzaileak jakinaren gainean jartzeko gehieneko epea 6 hilabete da, deialdia argitaratutako egunetik kontatzen hasita. Alde horretatik, onartutako zein ukatutako diru-laguntzen berri emango da.

Sei hilabeteko epea amaitu eta ebazpenaren berririk jaso ez badute, erakundeek, administrazioaren isiltasuna dela eta, diru-laguntzaren eskaria atzera bota dutela uler dezakete.

12.3. Administrazio-bidea amaitzen duen ebazpenaren kontra erakundeek aukerako berraztertze errekurtsoa jar dezakete Bilboko Gobernu Batzordearen aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jar dezakete, dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

13. artikulua. Diru-laguntzak ordaintzea

13.1. Orokorrean, diru-laguntzak aurrez ordainduko dira, justifikatu aurretik, oso-osorik, diru-laguntzari dagozkion jarduerak gauzatzeko behar den finantziazio gisa eta inolako bermerik eskatu gabe.

13.2. Diru-laguntza banku bidezko transferentzia bidez ordainduko da, erakundeak Bilboko Udalaren Hartzekodunen Erregistroan duen kontu korrontean.

13.3. Erakunde onuradunak aurreko diru-laguntzaren bat justifikatzeko epea amaitu eta justifikatu ez badu, ez du diru-laguntza jasoko. Halaber, erakundeak aurreko diru-laguntzaren bat itzultzea eskatu eta itzuli ez badu, ez du diru-laguntza jasoko.

14. artikulua. Erakunde onuradunak diru-laguntzaren inguruko publizitatea egitea

Diru-laguntza jasotzen duten erakunde guztiek Udalaren finantziazioa jaso dutela adierazi beharko dute eta, horretarako, Bilboko Udalaren logotipoa jarri beharko dute sortzen dituzten paperezko materialetan (kartelak, liburuxkak, informazio-orriak...), oroitzapenezko plaketan, bitarteko elektronikoko edo ikus-entzunezkoetan eta idatzizko komunikabideetan argitaratzen dituzten iragarkietan. Argitalpenetan, horrez gain, edukiaren gaineko erantzukizun-klausula bat jarri beharko dute, testu honekin:

Proiektu honek Bilboko Udalaren diru-laguntza jaso du, baina erakunde onuraduna da edukiaren erantzule bakarra.

Bilboko Udaleko sailek entitate interesdunei Bilboko Udalaren logotipoa emango zaie.

Gainera, erakundeek bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, erabili behar dituzte diruz lagundutako programa edo jardueraren publizitatea egiteko sortzen dituzten kartel, testu eta dokumentuetan. Orobat, diruz lagundutako jarduera sustatzeko adierazpen publikoak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dituzte, ordena horretan.

Artikulu honetan jasotako publizitate-betebeharrak eta zabalkunde-neurriak betetzen ez badira, diruz lagundutako programa edo jarduerarako emandako zenbatekoaren %10 itzuli beharko da.

Erakunde onuradunek jaso dituzten diru-laguntzen publizitatea gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritako moduan eta baldintzen arabera egin beharko dute. Lege horretako 5.4 artikuluan jasotako aurreikuspenaz baliatuz gero, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalak bitarteko elektronikoa erabiliko du publizitatearen inguruko zereginak betearazteko.

15. artikulua. Azpikontratazioa

Erakunde onuradunek, jarduerak azpikontratatzeko, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorreko 13. artikuluan eta Diru-laguntzen Lege Orokorreko 29.2 artikuluan ezarritakoa bete behar dute.

16. artikulua. Programa aldatzea

Programan aldaketa handiren bat egin aurretik, eskaria egin behar zaio Bilboko Udalari, erregistroa medio, eta Udalak berriaz baimendu behar du.

Aldaketa handiak egiteko eskariak arrazoitu egin behar dira, eta aurrekontuan eta kronograman zer eragin izango duten zehaztu behar da. Gobernu Batzordeak dagokion saileko ordezkariari eskuordetu dio aldaketa horiek baimentzeko zeregina.

Honako hauek hartzen dira aldaketa handitzat:

- Helburu orokor eta/edo espezifikoko aldatzea.
- Onartutako aurrekontu-partidetako zenbatekoak % 20 baino gehiago aldatzea (partiden arteko aurrekontu-aldaketek ezin diete zeharkako kostuei eragin), programaren aurrekontu osoa gutxitu gabe.

Aldaketak programaren aurrekontua gutxitzea badakar, Gobernu Batzordeak onartu behar du.

Diru-laguntzaren izaeraren eta helburuen funtsean eraginik ez duten aldaketak diru-laguntzak justifikatzen direnean onar daitezke, betiere aldaketa horiek onartzeak hirugarrenei kalterik egiten ez badie.

17. artikulua. Uko egitea

Behin diru-laguntza emanda, erakunde onuradunek diru-laguntzari uko egitea eska diezaioke Bilboko Udalari, erregistro bidez.

Eskaria jarduera gauzatzeko epea amaitu baino lehen aurkeztu behar da eta dagokion saileko ordezkariak onartu ondoren izango du eragina. Erakundeak, hala badagokio, jasotako zenbatekoa itzuli beharko du.

18. artikulua. Beste diru-laguntza batzuekin bateratzea

Bilboko Udalak emandako diru-laguntzak bateragarriak dira beste administrazio edo erakunde publiko eta pribatu batzuek emandako diru-laguntzekin. Betiere, diru-laguntzen eta beste iturri batzuen bitartez jasotako finantziazioak ezin du izan diruz lagundutako programaren kostua baino handiagoa.

Erakunde onuradunek Bilboko Udalari jakinarazi behar diote proiektu bererako beste diru-laguntza edo laguntza finantzario batzuk jaso dituztela, beste administrazio publiko batzuek emanda, udal ebazpenaren ondore. Horretarako, jakinarazpena jaso eta hilabeteko epea izango da, gehienez.

19. artikulua. Diru-laguntzak justifikatzea

19.1. Justifikatzeko epea

Erakundeek jasotako diru-laguntzak justifikatzeko hiru hilabeteko epea izango dute, programa amaitzen den egunetik kontatzen hasita, edo diru-laguntza jasotako egunetik, programa egikaritu ondoren jaso badute.

19.2. Justifikatu beharreko zenbatekoa

Diru-laguntza jasotzeko aurkeztutako aurrekontuaren % 100 justifikatu behar da, ez Bilboko Udalak emandako zenbatekoa bakarrik, Diru-laguntzen Lege Orokorrean zehaztutako moduan.

19.3. Justifikatzeko sistema

Diru-laguntza justifikatzeko, erakunde onuradunak programa bakoitzean egindako gastuaren justifikazio-kontua aurkeztu behar du, honela:

- a) Programa gauzatzeko egindako jardueren memoria eta lortutako emaitzak. Horrek guztiak bat etorri behar du diru-laguntza eskatutakoan aurkeztutako programarekin.
- b) Programen egikaritzeari dagokion gastuen eta diru-sarreraren balantzea, emandako ereduaren arabera egina.
- c) Programa egikaritzeko gastuen fakturen zerrenda, emandako ereduaren arabera egina.
- d) Programa egikaritzeko aurreikusitako epean egindako gastuak egiaztatzeko jatorrizko frogagiriak, deialdi bidez diru-laguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorreko 14.2 artikuluan ezarritako moduan. Hona hemen, zehatz-mehatz, zer frogagiri aurkeztu behar diren:

- Programa egikaritzeko zuzeneko kostu guztiak, fakturen eta froga-balio bera duten agirien bitartez justifikatuta.

Gastuak justifikatzeko frogagirik, beti, datu hauek eduki behar dituzte:

- Erakunde onuradunaren identifikazioa.
- Gastuaren helburuaren deskribapena; gastuak, betiere, programaren egikaritzearekin lotura zuzena izan behar du.

Alde horretatik, frogagirik justifikatzen duten programarenak izan behar dute, bakar-bakarrik.

Salbuespen gisa, enpresaburu edo profesional ez diren pertsona fisikoek noizean behin egiten dituzten jardueren kasuan, aurkeztu daitezke hitzartutako prestazioaren zenbatekoaren ordainagiria eta hartzailearen nortasun-agiria (NAN, AIZ edo pasaporte). Alde horretatik, zenbatekoa 200 euro baino handiagoa bada, ordinketa hartzailearen banku-kontuan egin izanaren egiaztagiria ere aurkeztu behar da, nahitaez.

Pertsonal-gastuak egiaztatzeko soldata-orriak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak aurkeztu behar dira.

- Zeharkako kostuei dagokienez, ez da frogagirik aurkeztu behar, salbu berariaz eskatzen bada. Erakunde onuradunak kostu horiek diruz lagundutako jarduerari dagokion partean egotzi beharko dizkio, zentzuz, eskuarki onartutako kontularitzako printzipio eta arauen arabera, eta, betiere, kostu horiek jarduera gauzatzen den aldikoak diren heinean. Egotzitako zenbatekoak ezin du izan, inola ere, diruz lagundutako programaren kostu zuzenen % 10 baino handiagoa.

Justifikazioari dagokionez, zeharkako kostuen portzentajeak erakundeak diru-laguntza jasotzeko aurkeztu duen aurrekontuan adierazitako berbera izan behar du, eta behar bezala justifikatutako zuzeneko kostuen gainean aplikatuko da.

19.4. Justifikaziorik egiten ez bada edo justifikazioa nahikoa ez bada

Justifikazio-betebeharra ez betetzeak, nahikoa ez justifikatzeak edo 14.artikuluari aipatzen den publizitate-betebeharra eta zabalkunde-neurriak ez betetzeak berekin ekarriko du jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharra, berandutze-interesarekin batera, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan ezarritako baldintzetan.

20. artikulua. Diru-laguntzen publizitatea

Urtea amaitu baino lehen, emandako eta ukatutako diru-laguntza guztiak Udalaren web-orrian argitaratuko dira.

Halaber, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalen diru-laguntzen berri emango da, Diru-laguntzen Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera.